

Musika eta kale animazioa

Aurreko urteetan bezala, aurtengo San Martzial jaiak ekitaldiz beterik datoz

San Martzial jaiak hemen dira. Egitarauan ekitaldi ugari, denetarik. Ikuskizunak denei egokitutakoak izango dira, kontzertu, antzerki, kirol froga eta haurrentzako jaialdiekin.

Aurtengo jai ekitaldietan gastatutakoa 270.455 euro izan dira, aurrekoetan baino % 30 gehiago. Ongietorria eman diote jai antolatzaileek, aspalditik baitzebiltzan egitarauko hainbat gauza hobetzeko eta aldatzeko asmoarekin, eta horretara zuzendu dute zati handi bat.

«Batzuetan hankamotz edo hobetu beharrean gelditzen dira zenbait ikuskizun, eta horri aurre egin nahian, musikan eta kale animazioan aldaketak egin ditugu», Josu Ormazabal Irungo udaletxeko kultur teknikariaren arabera. Orain arteko muga handiena aurrekontua dela adierazi du kultur teknikariak.

Mugak gairiditurik, beraz, musikaren kalitatean eta kantidadean zentratu dira, batez ere. Las Hijas del Sol, Baron Rojo eta Kubako erritmoez gain, Rosanaren kontzertua ikusteko aukera ere izango da. Horiekin batera, herriko zenbait talderentzat ere tokia izango da oholta gainean.

Musika talde gehienak ikusteko sarrera doan da, Rosanaren kontzertukoa izan ezik (Kiroldegian egingo da). Gainerako taldeek Urdanibia eta San Joan plazetan eskainiko dituzte beren emanaldiak.

Ildo honetan, musikaren arloan egindako inbertsioa azpimarratu nahi izan du Ormazabalek, izan ere, aurtengo helburu nagusietako bat musika kalitatea eta kantidadea hobetzeko izan baita. Taldeei ordaintzeaz gain, aurrekontuaren herena azpiegituran joan da, taldearen gastuak bezainbeste edo gehiago, Ormazabalen iritziz. Eta beraz, musika eskaintza on bat emateko



Musika emanaldiez gain, dantza, festa eta erromeria ere izango dira egunotan Irungo jaietan.

HAURRAK

Haurrei merezi duten garrantzia eman diete, eta haiei zuzenduriko ekitaldiak ere gehitu dituzte jai egitarauan

orduan apustu handia egin delakoan dago.

Bestalde, haurrei merezi duten garrantzia eman diete, eta haurtzako ekitaldiak ere gehitu dituzte. Auzoetan banaturik egoten diren urteroko jolasaz gain, eta arratsalde parte nahiko hutsa gelditzen zenez, hau betetzeko helburuarekin kale animazioa bultzatzea erabaki dute aurtun.

Horrela, goiz partean bezala, arratsaldean ere antzerkia ikusteko aukera izango dute etxeko txikienek. Zirkua, mimoa, Hankagorri eta Hortz-

muga taldeen ikuskizunak eta abar.

Auzo elkarten eskaintza

Udalaren ekimenak batetik eta auzoetako elkarten eskaintzak bestetik, hamar egunetako jaien egitaraua betetzen dute. Kirol eta kultur ekitaldiak nagusitzen dira. Kirol arloan, besteak beste, saskibaloia txapelketa, zikloturismo martxa, futbol torneo eta igeriketa antolatzen dituzte urtero. Kultur elkarten eskaintza urria-

goa izaten den arren, urteroko petanka eta bakailao txapelketekin batera, argazki lehiaketa, xakea eta dianak ez dira falta.

Irungo auzo elkarteek urte asko daramatzate jaietako egitarauan parte hartzen, eta ekitaldi gehienek, beraz, urteroko jarraipena dute. Urtetik urtera aldaketa gutxi izaten dira. Halere, talde bakoitzak hilabete epea du idatziz bere eskara udalari egiteko.


Fanfarreak, soinu jotzaileak eta dultzaineroen erritmoei jarraituz, buruhandi eta erraldoiak Irungo kaleak alaitzen ibiliko dira.

Ohikoa den beste ekitaldi bat euskal tradizioak mantentzen dituen baserriarraren eguna izaten da. Goizeko dultzaineroen dianarekin batera, Urdanibia plaza abereen bilt-

ki bihurtuko da. Izan ere, Irungo Euskal Kirolak elkarteak, urtero bezala, abere lehiaketa antolatuko baitu. Abereak feriak iraun bitartean, berriz, trikitilariak beren giroa lana egingo dute.


Bertsolariak ere ez dira falta, eta euskal tradizioaren egunean gaudenez, ezin dute huts egin herri kirolek ere. Abere lehiaketaren sariak eman eta bapo bazkaldu ondoren, berriz, gorputzak arintzeko ordua iritsiko da: dantza askatuko XII. Txapelketa jokatuko da. Lasaiago egon nahi duten horientzat, profesionalen pilota partidak izango dira.

Uztailaren lehenengo egunean, alegia, jaien azken egunean, gau partean festei agurra emateko ohiko kalejira egingo dute Irungo kaleetan barrena.



**FAISAN
ostatua**

Tel.: 943 62 10 26
PAUSU
Behobia (IRUN)



ORDUTEGIA Asteartetik ostiralera 9:30etik 6:00etara Larunbatetan 8:30etik 3etara HITZORDUA
GURAIZE
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUM
Uranzu k., 7 behea • Tel.: 943 62 55 61 • 20304 IRUN




AUNTXA TRIKITIXA ESKOLA

Trikitixa ikasteko erabiltzen ditugun metodoak:
• Solfeoarekin osaturiko metodoa • Aurrez-aurre
• Solfeorik gabe, zenbakien bidez

Aldabe Mendia, 31 (Irun)
Elizalde Herri Eskola (Oizartun)
Musical Victor, Tafalla kalea, 30 (Iruñea)
Tafallako Ikastola (Tafalla)

Tel.: 943 61 88 39 • Faxa: 943 61 88 39
E-mail: auntxatrik@euskalnet.net

Toki Alai



3-16 urte
bitarteko
hezkuntza
proiektua

Jaietan ere euskaraz !

Azukaitz, 2
943 62 28 37 tel.-faxe
tokialai@arrakis.es

Gazteluzar ibilbidea
943 63 52 60 tel.-faxe
tokialai@bezeroak.euskaltel.es

IRUN